

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Bihotz mina

ELUR-ANTZARA

Idazlea: Paul Gallico.
 Ilustratzailea: Aitziber Alonso.
 Itzultzailea: Ane Urrestarazu
 Hamaika Books, 2012.
 14 euro

Asun AGIRIANO

“Elur-antzara” Donostiako argitaletxe berri baten aurreneko liburua da. Papereko bertsioaz gain, e-liburu eta audioliburu formatuan ere eskura daiteke. Egoera zailetan jaiotzearen garrantzia azpimarratu nahiko nuke, izan ere, krisiaren ondorioz ekimen sortzaileak urritzen doazela dirudien arren, inguruan badaude liburuak kaleratzeko ausardia erakusten diguten argitaletxe berriak. Produktzio apala izanda ere, molde berriak bilatzen eta liburuak ezagutarazteko kemena agertzen duen inizatiba da Hamaika Books-ena. Ongi etorria izan dadila, beraz.

“Elur-antzara” 1941eko narrazioa da, eta, bertan oinarrituta, “The snow goose” izeneko pelikula estreinatua zen 1971n. Elur-antzara.com webgunean aukera eskaintzen dute irudiz hornitutako bideoa ikusteko, baita filmaren zati bat ere.

Narrazio laburra izanagatik, gai interesgarri anitz garatzen dira irakurketak aurrera egin ahala: bakardadea, amodioa, bazterkeria, gerra eta natura dira azpimarraga-

rrienak. Bakardadean eta gizartetik urrun, itsasargian bizi da Philip Rhyader margolaria, gorpuzkera bitxiagatik inguruan mesfidantza eta arbuioa sortzen dituen. Baina

mundutik alde egin duen arren, gizon sentibera eta bihotz handikoa da. Hegaziak biziki maite ditu, eta ehiztarien armek zauritutakoak etxean hartu eta zaintzen ditu, baita lokazti handietan preso geratu direnak ere. Gizon handi honen besoetan hartzen dute babesa eta atsedena.

Maitasun harremana sortzen da Fritha neskatilaren eta Philip beraren artean. Itsasargian aterpe hartu duen elur-antzara berezi batek lotzen ditu biak, animaliaaren metaforak batzen ditu bien nahiak.

Bigarren Mundu Gerran kokatzen da istorioa, Dunkerqueko ebakuazio entzutetsuan. Ane Urrestarazu itzultzailearen oharrak lagungarriak dira irakurketan aurrera egiteko eta historiako pasarte interesgarri hau hobeto ulertzeko.

Liburuaren estetika ere berezia da, edizioa zaindua da oso. Esaterako, gurean ez da ohikoa argitaletxe batek ilustrazioei hainbesteko pisua ematea. Aitziber Alonso ilustratzaileak hartu duen lana izugarria da: koloreen garrantzia eta paisaiak narrazioan duen indarra nabarmendu beharrekoak dira. Haizeak kulunkatzen dituen belarrak, paraje hondatuak; «Itsasoak lurra hartu du, gatzaga lokazia bihurtu du», dio narratzaileak. Gerra eta hondamenak sortzen duen bihotz min hori ondo islatua geratzen da marrazkietan. Liburuari darion malenkonía tonua areagotzea lortzen dute Aitziber Alonsoren irudiek.

Gerrak dakartzen galeren inguruko istorioa da. Finean, sentimenduzko istorio triste, hunkigarria, gazi-goza.



KALERATU BERRIAK



«MAMBO POA 4» NOS TRASLADA AL MATO GROSO

MAMBO POA 4

Varios autores.
 Concurso de relatos Mikel Essery, 2012.
 10 euros.

El relato “Viaje a los ojos de Wanda”, del periodista, viajero y montañero gasteiztarra Miguel Gutiérrez-Garitano, ha sido elegido para abrir la cuarta edición de “Mambo Poa”, nombre que hace referencia al concurso de relatos de viaje Mikel Essery. Según el jurado, la narración del gasteiztarra ha sido premiada por «trasladarnos al Mato Grosso de una manera

vívida, a través de una rica geografía humana del lugar, con unos personajes que adquieren una voz propia en las palabras del autor. Destaca en el relato un lenguaje extremadamente cuidado y una cercanía a las personas del lugar que responden perfectamente a la convocatoria del concurso».

Junto al relato de Gutiérrez-Garitano, la publicación recoge otros dieciséis relatos de otros tantos viajeros que tiene por objeto acercar las realidades de Centroamérica, Oriente Medio y sobre todo Asia.

Cabe recordar que el concurso se inició tras la muerte de Mikel Essery, junto a otras nueve personas, en un atentado en Yemen. Desde entonces, la convocatoria se esfuerza por ahondar en la empatía y conocer diferentes culturas y sociedades.



BIZITZA ETA HERIOTZAREN MISTERIOAK, POESIA KUTSUZ

ILARGIA ESNATU DA

Egilea: Joxan Ormazabal.
 Ilustratzailea: Iraia Okina.
 Bilduma: Ilargia esnatu da.
 Elkar, 2012.
 13 euro, 32 orrialde.

Obra leun eta hunkigarria osatu dute Joxan Ormazabal zegamarrak eta Iraia Okina durangarrak. Narratzaileak «bihotza ukitzen duten galderak» jartzen ditu, orrialde orrialde, irakurlearen begietan. Eta galdera horiei arnasa eta poesia puntua ematen diete Okinak egindako ilustrazioek; argitaletxearen arabera, «haren ilustrazioek ematen diote ipuinari idazlea bilatzen ari zen poesia eta kolorea».

Ormazabalek urteak eman zituen irakasle, eta, ostean, editore lanetan aritu zen; bitarte horretan haurrentzat makina bat istorio idatzi zituen, baita poema, abesti eta itzulpen lanak ere. “Ilargia esnatu da” argitalpenaren kasuan, bizitzaren eta heriotzaren gaiari poesia kutsuz eusten dio zegamarrak. Ormazabal 2010. urtean zendu zen, “Ehun ipuin hitz gutxitan” argitaratu eta oraindik buruan hainbat proiektu zituenean.

Bere aldetik, Iraia Okina Arte Ederretan lizentziatua da, eta egun pintura lanetan buru-belarri sartuta badago ere, ilustrazio lanak egin ditu, besteren artean Karlos Santistebanen “Irudimena hegan” lanean.

47. DURANGOKO EUSKAL
 LIBURU ETA DISKO AZOKA
 2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA